

## UDAL-ORDENANTZEN INGURUKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko urtarrilaren 14an Gune Publikoen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Urriko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean, Donostiako erabilera publikoko espazioetako ostalaritza arloko erabilerak arautzen dituen ordenantza betetzen ez zuten bi tabernen inguruko galderak egin genituen -Basqué eta Sin Número tabernak, hain zuzen ere-. Honekin batera, Udal Ordenantzak Kontrolatzeko Unitatearen inguruko interpelazioa egin genuen, udal ordenantzetako arau-hausteen salaketak gestioatzeko orduan, kexa asko zeudelako hiritarren eta eragileen aldetik.

Udal Gobernuko ordezkari batek erantzun zuen aldi-baterako baimen-bereziak emateko aukera zuela delegatuak, eta horrela egin zuela udarako, bi taberna hauen kasuan. Delegatuari erantzun zitzaion dagoeneko udara amaituta zegoela eta bi taberna horiek ordenantza bete gabe jarraitzen zutela. Delegatuak erantzun zuen Udalak ahaztu zuela eskutitza bidaltzea, baimen amaierarekin, eta aste horretan bertan bideratuko zutela. Baina, abenduan, oraindik, Basqué eta Sin Número tabernekin ordenantza urratzen jarraitzen zuten.

Basqué tabernaren kasuan, Udal Ordenantzak Kontrolatzeko unitateak abuztuaren 4ean txosten bat egin zuen, terraza bat baimenik gabe eta terrazen ordenantzaren aurka jarrita zegoela salatzeko. UOKUko teknikariek egindako lan honen ondoren, udal gobernuko zinegotzi batek baimen berezia eman zion Basqueri bi terraza jartzeko irailaren 30erarte. Azaroa eta abendurako, berriz ere, beste baimen berezi bat eskeini zioten udal gobernuko ordezkariak Basqueri udaleko idazkaritza juridikoak egindako txostenean argi ondorioztatzen den bezela: udal-ordenantzak diotenaren aurka.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, udal ordenantzak esaten dutena bere horretan errespetatu eta betearaztea.

Donostian, 2016ko urtarrilaren 22an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**